

2024

AN TZER KI AROA

Escuela Navarra
de Teatro
Nafarroako
Antzerki Eskola
19:00



ANTZERKI AROA 2024
Escuela Navarra de Teatro / Nafarroako
Antzerki Eskola
19:00

Urriak 16 octubre
ERREGE BEGIBAKARRA
Inextremis Teatro

Egilea/Autor: Marc Crehuet
Zuzendaria/Director: Fernando Bernués
Antzezleak/Actores: Txori García Uriz, Iratxe
García Uriz, Leire Ruiz, Oier Zuñiga, Ion Barbarin

Zer gertatuko litzateke istiluen aurkako polizia bat haren indarkeriaren biktimarekin aurrez aurre aurkituko balitz, beste testuinguru batean, manifestazioko kausetik urrun, adiskideen arteko afari batean, adibidez? Errege begibakarra antzezlana aurkeztuko dugu, Inextremis nafar konpainiaren hirugarren ekoizpen eszenikoa, Tanttaka Teatro konpainia gipuzkoarrekin batera ekoiztitakoa. Marc Crehuet antzerkigile katalanak idatzitako 'El Rey Tuerto' antzerki-testuaren eszenaratzea (euskarazko/gaztelaniarazko bertsio bikoitzean). Umore beltzeko ukituak dituen komedia soziala, Fernando Bernuésen zuzendaritzapean, eta Acrónica Producciones taldearen laguntza teknikoarekin.

¿Qué pasaría si se encontrase cara a cara un antidisturbios con la víctima de su violencia en otro contexto, lejos del caos de la manifestación, en una amistosa cena, por ejemplo? Presentamos 'El Rey tuerto', tercera producción escénica de la compañía navarra Inextremis en coproducción con la compañía guipuzcoana Tanttaka Teatro. Puesta en escena (en su doble versión euskera/-castellano) del texto teatral 'El Rey tuerto' escrito por el dramaturgo catalán Marc Crehuet. Una comedia social con tintes de humor negro bajo la dirección escénica de Fernando Bernués y la asistencia técnica de Acrónica Producciones.

Urriak 23 octubre
POSDATARIK GABEKO GUTUNAK
Xake Produksioak
Egilea/Autor: Kepa Errasti
Zuzendaria/Director: Getari Etxegarai
Antzezleak/Actores: Nerea Ariznabarreta, Kepa Errasti

Bakardade lagunduak existitzen dira? Eta bakarriketa lagunduak? Horixe da Postdatarik gabeko gutunak, bakarriketa lagundu bat. Mikelek 5 urte eman ditu preso, eta ordubete geratzen zaio bizimodu berri bat hasteko. Ordubete hori inoiz parez pare ezagutu ez duen pertsona ezezagun bati eskainiko dio. Azken hilabeteotan gutun misteriosu batzuk jaso ditu bere burua identifikatu ez duen norbaiten partetik. Eskutitz guztiek ezaugarri bera dute: postdata joan beharko lukeen tokia hutsik dago. Mikelek bere bizitzaren errepasoa egiteko aprobetxatuko du ordu hori, denbora horretan guztian jaso dituen gutun guztiak gogoratzen eta Charlotz jantzitako emakume pianista mutua bat ondoan duela, gutun misteriosu horien igorlea nor den jakin arte.

¿Existen las soledades compartidas? ¿Y los soliloquios compartidos? Eso es lo que es 'Postdatarik gabeko gutunak/Cartas sin posdata': un soliloquio compartido. Mikel lleva 5 años preso y le falta una hora para empezar una nueva vida. Está a punto de dedicar esa hora a una persona desconocida. Estos últimos meses ha recibido unas cartas misteriosas de parte de alguien que nunca se ha identificado. Todas las misivas tienen una misma característica: el sitio donde debería ir la posdata está vacía. Mikel aprovechará esa hora para hacer un repaso de su vida, recordando todas las cartas que ha recibido durante todo este tiempo y acompañado de una pianista muda vestida de Charlot, hasta descubrir de quien proceden esas cartas misteriosas.

Urriak 30 octubre
ARTXIBO BILUZIA
Metrokoadroka
Zuzendaria/Director: Marina Suarez Ortiz de Zarate, Oier Guillan
Ikerketaren zuzendari artistikoa/ Dirección artística de la investigación: Idoia Beratarbide
Antzezleak/Actores: Intza Alkain, Javier Barandiaran

Joan Mari Torrealdai atxilotu zutenean, poliziak bere etxetik dokumentu zenbatezina eraman zituen; "Biluzik utzi ninduten, ez fisikoki, bai intelektuarki", kontatuko zuen beranduago. Artxibo biluzia pieza sortzeko egun hartan hutsik geratutako karpeta bat irudikatu dugu, eta baliabide eszenikoekin betetzen saiatu gara, gure buruari eta publikoari galdera hau eginez: "Zer istorio nahi zenuke historiara pasatzea?". Konferentzia performatiboa, dokumentu-antzerkia eta umorea uztartzen dituen pieza eszenikoa da Artxibo biluzia. Bi aktore ikusiko ditugu eszenan, publikoarekin elkarrizketan, ikerketa bat abiatzen, dokumentu bat akzioa fisikoaren pizgailua izan daitekeen frogatu nahian. ARTXIBO BILUZIA I. Joan Mari Torrealdai Ikerketa Bekari esker Metrokoadroka kolektiboak sortu duen proiektua da.

Cuando detuvieron a Joan Mari Torrealdai, la policía confiscó en su casa innumerables documentos; Más adelante contaría: "Me dejaron desnudo, no físicamente, sino intelectualmente". Para crear la pieza Artxibo biluzia (El archivo desnudo) hemos imaginado una carpeta que quedó vacía aquel día, y hemos intentado llenarla de recursos escénicos, haciéndonos a nosotros mismos y al público, la siguiente pregunta: "¿Qué historia te gustaría que pasara a la historia?". Artxibo biluzia (El archivo desnudo) es una pieza escénica que fusiona la conferencia performativa, el teatro documental y el humor. En la escena veremos a dos actores, dialogando con el público, iniciando una investigación para demostrar que un documento puede constituir un incentivo para la acción física. ARTXIBO BILUZIA es un proyecto creado por el colectivo Metrokoadroka gracias a la I Beca de Investigación Joan Mari Torrealdai.

Azaroak 6 noviembre
OLAGARRUA
Antzerki Aroak / Ttipia
Antzezleak/Actores: Olatz Beobide, Maitane Perez, Nerea Arriola
Akonpainamendua eta dramaturgia-laguntzaileak/ Acompañamiento y ayudantes de dramaturgia: Amancay Gaztañaga, Iraia Elias, Maialen Diaz Urriza

Errudunak gara? Ba al daude erru txiki eta handiak? Erruak askatu nahi ditugu? Oholtza bat. Hiru emakume. Olagarro bat. Errua desagerrarazteko saiakera bat. Garbitzeko, gainetik kentzeko. Gorputzetik, plazeretik, fantasiatik. Hiru aktore, dena ematen, helburu bakar batekin: herri horretako erruekin amaitzea. Lortuko al dute?

¿Somos culpables? ¿Hay pequeñas y grandes culpas? ¿Queremos liberar culpas? Un tablado. Tres mujeres. Un pulpo. Un intento de eliminar la culpa. Para limpiar, para eliminar. Del cuerpo, del placer, de la fantasía. Tres actrices dándolo todo con un único objetivo: terminar con las culpas de ese pueblo. ¿Lo conseguirán?

Sarrerak/Entradas (8€):

Nafarroako Antzerki Eskola (txarteldegia eta www.laescueladeteatro.com/eus). Escuela Navarra de Teatro (taquilla y www.laescueladeteatro.com).

Euskara-ikasleendako sarrerak, Euskaltegietan eta Hizkuntza Eskolan: 5 €. Entrada para estudiantes de euskera en Euskaltegis o Escuela de Idiomas: 5 €